

ERALDAKETA DIGITALERANTZ

Sareratu!

bigē 

Bizkaiko guraso
elkartea



Sare sozialei buruzko tailerrak Ikasleen Guraso Elkarteentzat

IGEetan ordezkaturako familiak funtsezko faktorea dira Hezkuntza-Komunitatean, eta ezinbesteko lana egiten dute, ez bakarrik ikastetxeen dinamikari lagunduz, baita gure seme-alabei haien hezkuntzan aktiboki inplikaturata gaudela erakutsiz ere.

IGEEK jarduera ugari antolatzen dituzte ikasturtean zehar, ikastetxearen kudeaketa eta eskolaren kalitatea hobetzen laguntzen dutenak.

Hala ere, familien parte-hartzea nahiko mugatua dela elkarten proiektu eta jardueretan ezaguna da. Lan arrazoiengatik, denborarik ez izatea, interesik ez izatea edo agian guraso elkartearen barruan zer egiten den ez jakitea izan daitezke arrazoiak nagusiak.





Sare sozialak, familiek
eskolaren barruan duten
komunikazioa, inplikazioa eta
parte-hartzea hobetzeko
tresna gisa.

SARE SOZIALAK

Badakigu harremanak izateko
moduak aldatzen ari direla.

Eraldaketa digital handiko
unearen aurrean gaude, eta
gizarte aldaketetara egokitu
behar dugu.

Sare sozialak informazioa
berehala, edozein unetan, sortu
eta jasotzeko tresna ezin hobea
bihurtu dira.



Facebook

Gaur egun, Facebook da munduko sare sozialik zabalduena: **bi pertsonatik batek profil pertsonala du Facebooken.**



Gainera, Facebookeko orriek argitalpen mota desberdinak sortzeko aukera ematen digute (estekak, irudiak, bideoak, oharrak, ekitaldiak, etab.). Beraz, hainbat gai landu daitezke hala nola:

- **jarduera akademikoak eskolan:** irakasleekin proiektuak garatzeko egiten dituzten lankidetzak-jarduerak ikusaraziz (baratzea, bitartekari,...), familiak ikastetxera hurbiltzeko helburuarekin.
- **Guraso Elkarteak antolatzen dituen jarduerak:** elkarrekin egin ohi dituzten proiektuak eta jarduerak zabaltzeko eta balioa emateko.
- **Ikasleentzat eta familientzat interesgarriak diren gaiak.**
- **Gizarte, hezkuntza eta beste arlo batzuetako nobedadeak eta albisteak**



Horrela, gure eskolari dagozkion jarduerak erakusteaz gain, auzo, hiri eta egoera sozial eta kultural oso espezifiko baten barruan sartzen dugu.

Instagram



Instagram gaur egun gehien erabiltzen den sare sozialetako bat da, bai formatu erakargarria duelako, bai interakziorako eskaintzen dituen aukera ezberdinengatik.

24 orduko 100 milioi argazki baino gehiago igotzen dira Instagramera. Instagram stories egunean 300 milioi erabiltzaile baino gehiagok erabiltzen dute.

Datu horiek kontuan hartuta, ikusten dugu, modu naturalean, **gero eta gehiago direla sare sozial hori beren hezkuntza komunitatearekiko komunikaziorako eta interakziorako bitarteko gisa erabiltzen duten guraso elkarteak.**

Gure familiak eta ikasleak dauden komunikabideetan egotea hezkuntza-komunitate osoaren arteko harremanak mantentzeko eta sendotzeko gakoa da. Sare sozialak ohiko kanalen (zirkularrak eta kartelak) osagarri gisa ezartzeak aukera ematen digu familiekin konektatzeko.



Sare sozialak ohiko kanalen
(zirkularrak eta kartelak) osagarri gisa
ezartzeak aukera ematen digu
familiekin konektatzeko.

Onurak

- Mundu guztia dagoen ingurunean **komunikatzeko** aukera ematen digute (eskola, irakasleak, gurasoak, gurasoak, ikasleak, ikasle ohiak, familia, enpresak, erakundeak, etab.).
- **Doan.**
- Modu errazean, ezagutza teknikorik eduki beharrik gabe, oso baliabide intuitiboa baita.
- Kudeaketa hainbat pertsonaren artean **partekatzeko** aukerarekin, plataforma horiek erabiltzaile anitzeko administrazioa ahalbidetzen baitute (gailu ugaritan, mugikorrean, tabletan, ordenagailuan, etab.).
- Familiak **parte hartzeko kanal berri bat** sortzen da, ohikoaz gain (bilerak, batzarrak, ...).
- Erabiltzaileen arteko **interakzioa** errazten dute ("gustatzen zait", iruzkinak, mezu zuzenak), eta, horri esker, familiak elkarrekin konektatzen dira.
- **Komunikazioa** oso bisuala (argazki eta bideoekin) eta erakargarria da.
- Egiten diren jarduerak grafikoki erakusteko aukera ematen du, **parte-hartzea** sustatuz.

Helburia eta Irismena

- **Parte-hartzea, lankidetzeta eta ekimen berrien garapena sustatzea.** Aukera ematen digu aurretik parte hartu ez duten pertsoneri jarduerak irekitzeko (ezjakintasunagatik, interesik ezagatik edo ikusi duten arte), eta horiek hobetzeko **ikuspuntu berriak** edo ikuspegi guztiz berriak eman ditzakete.
- **Komunitatearen barnean harremanak bultzatzea baita elkar ezagutzea.** Hainbat jarduera eta proiektutan lan egiteak, askotan, **eskola barrutik** ikusteko aukera ematen digu. Ohituta gaude eskolan sartzen irakasleekin hitz egiteko, baina inoiz ez litzaiguke bururatuko zuzendariarekin edo atezainekin hitz egin genezakeen.
- **Ikusarazi.** Sare sozialek elkarteari eta eskolari buruzko edozein gauza oso azkar ezagutarazteko aukera ematen dute, baina, batez ere, dagoeneko ezarrita dauden dinamiketan **parte hartzeko** aukera ematen dute, eta beste berri batzuk sortzeko eta kudeatzeko bidea ezartzen dute.

Proposamena



HAUSNARKETA PRESTAKUNTZA JARRAIPENA

HAUSNARKETA

Proiektuaren hasieran, elkartearen egungo egoerari buruzko aurretiko **azterlan txiki bat** egingo dugu (hasierako inkesta posta elektroniko bidez), eta elkartearen presentzia digital osoa aztertuko dugu: web-orria, sare sozialetako profilak, argitalpen motak, argitalpenen maiztasuna, etab.

Ondoren, **Guraso Elkartearen Zuzendaritza Batzordearekin lehen saioa** programatuko dugu, eta bertan erabakiko dira, inkesta horretan eta elkarte bakoitzaren behar berezietan oinarrituta, prestakuntza-saio bakoitzean egingo diren ekintzak, bai eta prestakuntza horretan parte hartuko duten Zuzendaritza Batzordeko pertsonak ere.



PRESTAKUNTZA

Ondoren, prestakuntza-prozesua egingo da. Helburua izango da hautatutako sare soziala irekitzea, dinamizatzea eta bere burua kudeatzeko behar diren ekintzak gauzatzea.

Bi orduko 3 saio programatuko ditugu hautatutako sare sozialaren kudeaketaz arduratzen diren Zuzendaritza Batzordeko pertsonekin. Bilera horiek praktikoak izango dira nagusiki, eta proiektuaren plangintzan jasotako puntu guztiak garatuko dira.

Prestakuntza horren helburu nagusia Guraso Elkarteari sare sozialetan duen presentzia modu eraginkorrean autokudeaketa egiteko behar diren tresnak eta ezagutza ematea izango da.



JARRAIPENA

Proiektua ezarri ondoren, ebaluazioa egingo da, ordura arte egindako ekintzak neurtzeko.

Jarraipen bat ezarriko dugu, **elkarteari gizarte-sarea abian jartzeko prozesuan laguntzea izango duena helburu**, hura gauzatzean autonomia eman ahal izateko.

Jarraipen hori gutxienez hurrengo 3 hilabeteetan egingo da, eta egon daitezkeen zalantzei, tresna berrien beharrari eta abarri erantzun ahal izango zaie.

Proiektuaren fase honetan beste bilera bat egingo dugu hobetu beharreko arloak aztertzeko. **Familiatzako tailer bat** programatzea gomendatzen da, proiektua ezagutarazteko eta aukeratutako sare soziala nola erabili irakasteko.



Sareratu!

Info gehiago
94 416 93 60
bige@bige.eus

